

# Gutxienez bederatzi lagun atxilotu dituzte Keberko atentatuari buruzko ikerketan

Poliziak Pornizh-en atentatua izan zela adierazi du, ARBk hori onartu eta gero

Ander Fadda / Naoned

Polizia frantsesak Britainiako mugimendu independentistako zazpi kide eta bi euskal herritar atxilotu zituen atzo Keberko atentatuaz egiten ari

den ikerketan. Atxilotetak ARB Britainiako Armada Iraultzailearen agiria ezagutu ondoren gertatu dira. Erakundeak esan duenez, ARBk lehergailua jarri zuen Pornizheko McDonald's-en kontra baina horrek

ez zuen eztdaririk egin. ARBren arabera, leherkari hori Keverrera aldatu zuten zerbitzu sekretuek. Poliziak ez zuen atzo arte Pornizheko gertakiaz deus esan, baina azkenean onartu egin behar izan du.

BREITAINIAKO ARMADA IRAULTZAILEAK aurreko asteburuan kaleratutako agiriak ezustea sortu du herralde horretan. Batetik, ARBk ukatu egin du Keberko McDonald's-en kontrako atentatuarekin zerikusia duela. Leherketa haren ondorioz multinazionalako langile bat hil zen, 28 urteko emakumea. Bestetik, erakundeak agirian jakinarazitako informazioa onartu beharrean izan da Polizia, orain artean isilik egon den arren: apirilaren 14ean, Keberko atentatua baino bost egun lehenago, beste McDonald's baten kontrako saioa izan zela Pornizhen.

Iritziak iritzi, gauzak nahasita daude Britainian. Izan ere, astelehenean bertan, ARBren agiriaren berri izan eta gero, Canal Plus telebista kateak Pornizheko McDonald'sko gerentea elkarrizketatu zuen. Jatetxeko arduradunak irmo ukatu zuen ARBk bere lokalaren kontrako lehergailua jarria zuela. Ordu batzuk geroago Poliziak kaleratutako informazioak kontrakoa zioen. Poliziak onartu behar izan du ARBren informazioa eta McDonald'seko gerentearen sinesgarritasuna hautsi du.

Askoren iritzi, ARBren agiria ere ez da fidatzekoa, Horien arabera, nazionalista



Keberko McDonald's-en kontrako atentatuan jatetxeko langile bat hil zen, 28 urteko emakumea. Poliziak bederatzi pertsona atxilotu zituen atzo ikerketa horren barruan.

bretainiarren kontra hasitako kanpaina mediatikoari aurre egiteko alferrikako saioa izango litzateke hori. Beste batzuek, ordea, zerbitzu sekretuen manipulazioztat jo dute Keverren gertatua, Britainiako mugimendu abertzalea kriminalizatzeke.

## Poliziaren sarekada

Argibide gehiagorik ezean agerikoa da, Poliziak —eta

Pornizheko McDonald'seko arduradunak — apirilaren 14ko atentatua isilarazi nahi izan dutela, eta erreakzioa ez dela iritsi ARBk informazio hori kaleratu arte.

Horren ondorioz operazio zabala hasi zuen atzo arratsaldean Poliziak Britainian eta, gutxienez, bi euskal herritar eta mugimendu independentistako zazpi britainiar atxilotu zituen Naoned (Nantes), Roazhon (Ren-

nes) eta Fougerezen. Atzo azken orduan atxilotutako zazpi britainiarretako hiru izena jakin zen. Haietako bat Gael Roblin zen, Emgann talde independentistako bozeramailea. Beste biak, Pascal Lez eta Christian Georgeault ziren, horiek ere militante britainiarrak.

Victor Robert, ARBren agiri jaso zuen CAPA agentziako kazetaria ere atxilotu du Frantziako Poliziak.

## laburrean

### FRANTZIA

■ **Atzerritarrei botoa emateko eskubidea nekez onartuko du Legebiltzarrak**  
FRANTZIAKO Legebiltzarrak gaur jarraituko ditu Europatik kanpoko atzerritarrei udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea aitortzeko lege proposamenaren eztabaidak. Berdeek aurkeztutako eta Legebiltzarreko legeen batzordeak nabarmen moteldutako testu honen azterketa atzo hasi zen baina eskuineko oposizioak jarritako prozedura-mozioek oztopatu zuten egunean bertan onartuta egon zedin.

Berdeek Frantziaren bizi diren Europako Batasunaz kanpoko atzerritarrei eman nahi diete boto eskubidea.

### TXETXENIA

■ **Gutxienez 14 hil azken orduotan**  
ERRUSIAKO Armadak eta Txetxeniako Gobernuak iturriek bat egin zuten atzo azken orduotan borroka gutxi izan dela esatean. Alta, errusiarrek ziurtatu dute bederatzi gerrillari hil dituztela, hiru Serjen-Jurten eta beste sei Novaia-Jizn-en. Txetxeniarrak, berriz, iragarri dute gutxienez bost soldadu hil zituztela errusiarrek Groznin duten koartel nagusia tirokatu ondoren. Errusiarrek gezurtatu egin dute, berriz, jjoan den igandean OMON Barne Ministerioko talde bereziek beste segada bat jasan zutela Batxi-Jurten. Eraso horretan 13 soldadu hil zituztela ziurtatu dute txetxeniarrak.

### ITALIA

■ **Sindikatuaren laguntza eskatu du Amatok lan merkatua malgutzeko**  
GIULIANO AMATO Italiako lehen ministroak senadoreen konfiantza eskatu zuen atzo bere Gobernuarentzat. Senatuan egindako hitzaldian, Amatok deia egin zien sindikatuei laguntza eman diezaioten lan merkatua malgutu ahal izateko. «Garai berrietara egokitzeko kuraia» galdegin zien gobernuburuak sindikatuei. Gaur emango dute botoa senadoreek eta ustekaberik ezean, Senatuen konfiantza eskuratuko du Amatok Gobernuak. Izan ere, Diputatuen Ganberan baino gehiengo zabalagoa du zentro-ekzerrak goi ganberan.

## Armeniako presidentek gobernu osoa kanporatu du

■ **Kotxarian**  
lehendakariak arazoak ditu Armadari bere boterea ezartzeko

Erredazioa/ Donostia

ROBERT KOTXARIAN Armeniako presidentek Aram Sarkisian lehen ministroa eta haren gobernu osoa beren karguetatik kendu zituen atzo. Erabakia ez da ustekabekoa izan, urrian komando batek aurreko lehen ministroa hil ondoren, Armenia krisi politikotik irten ezinean baitabil. Gobernuak aldatuta, Kotxarianek bere aginpi-dea ezarri nahi du, Legebiltzarrak eta Armadak auzitan jarri baitute. Azerbaijan auzoarekin dituen arazoak ere larritzen ari zaizkio Armeniari: joan den igandean tiroketa izan zen bi herrialdeetako mugazainen artean.

Kotxarian telebistaz azaldu zen Aram Sarkisian lehen ministroa eta haren ministro guztiak bota zituela adierazteko. «Erabakia ez da erraza izan Sarkisian zenarekin nituen harreman direla eta», argudiatu zuen lehenakaria. Izan ere, Aram Sarkisian anaia Vazgen gobernuburu zen 1999ko urriaren 27an bost laguneko komando bat Erevango Legebiltzarrean sartu eta tirokatu zuenean. Erasoaren zortzi biktimen artean izan ziren Vazgen Sarkisian eta Karen Demiritxian Legebiltzarreko lehenakaria. Komandoaren helburua zein zen ez dago erabat garbi oraindik. Batetik, erasotzaileek arazo psikologikoak izandakoak ziren, eta bestetik, Karabakh Garaiko gatazkan Gobernuak erakusten ari zen «biguntasuna» salatu nahi zutela esan zuten.

Hilketa horrek berak tentsio handia eragin du Kotxarianen eta diputatu eta militarren artean. Vazgen Sarkisian zenak diputatuen eta Armadaren erabateko sostengua zuen, eta presidentek beren haserrea eragin zuen joan den astean, uko egin baitzion Gagik Djangirian fiskal nagusiak ikerketari buruzko azalpenak eman zitzaizkion Parlamentuan.